Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
*Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer*

**PROGRAMA**

3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

**ARDURADUNA**

47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

## HELBURUA

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEA APLIKATU DADIN SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNAMENDUA HOBETU DAITEZEN BULTZATZEA

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN KOORDINAZIOA BULTZATZEA

4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO

## BETETZE MAILA

**1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEA APLIKATU DADIN SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA OSATU, EGITURAK INDARTU ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNAMENDUA HOBETU DAITEZEN BULTZATZEA**

Emakunderen Zuzendaritza Batzordeak ohiko bilkura egin du maiatzaren 17an, araudian eskatzen diren txostenak eta dokumentuak onesteko (zifren txostena, botere publikoen jarduketaren memoria eta Emakunderen memoria), eta Berdintasunerako VII. Planaren proposamen eta lan-prozedura baliozkotzeko.

Eusko Legebiltzarrari txosten hauek helarazi dizkio: Berdintasunerako Legearen ebaluazioak, Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txostena, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren ebaluazioaren emaitzak, eta Emakunderen, BEGIRA batzordearen eta sektore pribatuan sexu-diskriminazioko egoeretan dauden herritarrei arreta emateko zerbitzuaren jarduera-memoriak.

Emakunderen zuzendaria hirutan agertu da Eusko Legebiltzarrean Giza Eskubide eta Berdintasun

***PROGRAMA***

*3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

***RESPONSABLE***

*47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

*DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER*

## *OBJETIVO*

*1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD*

*2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS*

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD***

*El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado una sesión ordinaria el 17 de mayo para la aprobación de los informes y documentos requeridos por la normativa (Informe Cifras, Memoria de actuación de los poderes públicos y Memoria de Emakunde), así como para validar la propuesta y el proceso de trabajo del VII Plan para la Igualdad.*

*Se han remitido los siguientes informes al Parlamento Vasco: las evaluaciones de la Ley para la Igualdad, el informe de situación de las mujeres y los hombres en Euskadi, los resultados de la evaluación relativa al VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE, las Memorias de actuación de Emakunde, de la Comisión BEGIRA y del Servicio de atención a la ciudadanía ante situaciones de discriminación por razón de sexo en el sector privado.*

*La Directora de Emakunde ha comparecido en tres ocasiones en el Parlamento Vasco ante la Comisión de*

Batzordearen aurrean eta Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen aurrean.

Zortzi txosten eta azterlan juridiko prestatu ditugu Berdintasunaren arloko araudira egokitzeari buruz, hainbat gairi dagokionez (tratu txarren biktima izandakoen eskubide ekonomikoak; galdetegietan, deialdietan eta enplegu publikorako sarbidean sexuaren aldagaia ezartzea; hizkuntza inklusiboa, eta abar).

Administrazio publikoetan berdintasun-politikak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen duten azterlanak eta baliabideak sortu eta zabaltzeari dagokionez:

Berdintasunaren eta feminismoaren eremuan euskarazko terminologia lantzeko eta kontsultarako tresna bat sortzeko proiektu bat abiarazi dugu.

Generoko euskarazko ortografia-zuzentzailea eguneratu dugu, bertsio berrienetan funtziona dezan (Word eta Libreoffice).

Honako lan hauek argitaratu ditugu:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 4 ebaluazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko publizitate-agentziak genero-ikuspegitik monitorizatzea, 2016.

2015-2016an emakumeek euskal hedabideetan izan duten presentziari buruzko azterketa.

Euskadiko komunikabideetan eta agentzietan genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza-material osagarria.

Genero-ikuspegitik begiratuta kudeaketari balioa emateko gida.

Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea.

Enpresetan eta bestelako entitate batzuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egiteko tresna eguneratu da. Entitate publikoetan eta pribatuetan berdintasuna sustatzeko kudeaketa egin da.

Jaurlaritzak sustatzen duen araudiaren genero-eraginari dagokionez:

Guztira, 69 espediente jaso ditugu 2017an. 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko 37 txosten egin ditugu, 31 ofizio salbuetsi, eta 2 txosten 2018an egiteko geratu dira.

Eskuragarri dagoen informazio guztia migratu eta irauli ondoren, elikatzen jarraitu da Emakunderen intranetean generoaren araberako eraginari buruzko espediente guztiak kontsultatzeko informatika-aplikazioa.

Laguntzako 4 material sektorial berri prestatu ditugu, Hirigintzaren, Kulturaren, Justiziaren eta Gizarte-bazterketa eta pobreziaren arloan generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko.

Berdintasun Legearen 15.1 artikuluan aipatutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana

*Derechos Humanos e Igualdad y la Comisión de Hacienda y Presupuestos.*

*Se han elaborado 8 informes y estudios jurídicos sobre el ajuste a la normativa en materia de igualdad de temas diversos (derechos económicos de víctimas de maltrato, establecimiento de la variable sexo en cuestionarios, convocatorias y acceso a empleo público, lenguaje inclusivo, etc…).*

*En cuanto a la creación y difusión de estudios y recursos que apoyen el diseño y puesta en marcha de políticas de igualdad en las administraciones públicas:*

*Se ha iniciado el proyecto para trabajar la terminología en el ámbito de la igualdad y el feminismo en euskera y crear una herramienta de consulta.*

*Se ha actualizado el corrector ortográfico de género en euskara para que funcionara en las versiones más recientes (Word y Libreoffice).*

*Se han publicado los siguientes trabajos:*

*Las 4 evaluaciones de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres.*

*Monitorización de las agencias de publicidad en Euskadi desde la perspectiva de género, 2016.*

*Análisis de la presencia de las mujeres en los medios de comunicación vascos 2015-2016.*

*Materiales de apoyo a la formación para incorporar la perspectiva de género en las agencias y medios de comunicación en Euskadi.*

*Guía para un aporte de valor a la gestión desde la perspectiva de género.*

*Derecho a la intimidad de las víctimas de delitos de violencia de género. Derecho al anonimato de las víctimas.*

*Se ha actualizado la herramienta para la elaboración de diagnósticos y planes para la igualdad de mujeres y hombres en empresas y otras entidades. Gestión para la igualdad en las entidades públicas y privadas.*

*En relación con la evaluación del impacto de género de la normativa que promueve el Gobierno:*

*El total de expedientes recibidos en 2017 ha sido de 69. Se han emitido 37 informes para verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ley 4/2005, 31 oficios exentos y 2 han quedado pendientes para ser informados en 2018.*

*Se ha seguido alimentando la aplicación informática que permite consultar todos los expedientes relativos a la evaluación de impacto en función del género, tras un proceso de migración y volcado de toda la información disponible.*

*Se han elaborado 4 nuevos materiales de sectoriales de apoyo para la elaboración de Informes de impacto en función del género en materia de Urbanismo, Cultura, Justicia y Exclusión social y pobreza.*

*Se ha elaborado el VII Plan para la Igualdad de mujeres y hombres en la CAE a que se refiere el artículo 15.1 de la*

prestatu dugu, partaidetzazko prozesu baten bidez, eta horrek beharrezko kontraste politikoa, teknikoa eta soziala ahalbidetu du euskal administrazio publikoen eta gizarte-eragileen aldetik.

*Ley para la igualdad, a través de un proceso participativo que ha posibilitado el necesario contraste político, técnico y social por parte de las administraciones públicas vascas y agentes sociales.*

Emakunderen 2016ko plana ebaluatuta, aurreikusitako jardueren betetze-maila handia dela ikusi da (ekintzen % 91 gauzatu da, eta beste % 7 garabidean dago).

*Se ha evaluado el plan de Emakunde 2016, constatando el alto grado de cumplimiento de las actuaciones previstas (un 91% de las acciones han sido ejecutadas y otro 7% se encuentran en proceso de desarrollo).*

2017ari dagokion urteko jarduera-plana egin dugu; berdintasunaren arloan 200 ekintza baino gehiago egiteko asmoa jasotzen du.

*Se ha elaborado el plan anual de actuaciones correspondiente al año 2017, que comprende la realización de más de 200 acciones en materia de igualdad.*

Foru- eta toki-administrazioei dagokienez, jarduera hauek egin ditugu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko plangintza bultzatu eta koordinatzeko:

*Para el impulso y la coordinación de la planificación en materia de igualdad de mujeres y hombres por lo que respecta a la administración foral y local se han realizado las siguientes actuaciones:*

EAEko udalerrientzako, koadrilentzako eta mankomunitateentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko edo berdintasunerako planak eta plan sektorialak, baita indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-protokoloak ere, sortu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko. Urteko deialdia da; 64 eskaera jaso eta 33 laguntza eman ditugu.

*Se ha gestionado la convocatoria para la concesión de subvenciones a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres, incluidos protocolos de atención a mujeres víctimas de violencia. Se trata de una convocatoria anual en la que se han recibido 64 solicitudes y se han concedido 33 ayudas.*

Zenbait udali aholkularitza eman diogu berdintasun-planak egiteko eta materialak sortzeko eta berrikusteko hasitako prozesuan, eta Gasteizko Udalaren berdintasun-plana egiteko adituen batzordean parte hartu dugu. Halaber, materialak egin eta berrikusteko garaian ere aholkularitza eman dugu.

*Se ha asesorado a varios ayuntamientos en el proceso iniciado para la elaboración de sus planes para la igualdad y se ha participado en la comisión de personas expertas para la elaboración del Plan para la igualdad de Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Asimismo se ha asesorado en la elaboración y revisión de materiales.*

Sei planen gaineko txostenak egin ditugu: bata foru-aldundikoa, eta 5 toki-erakundeetakoak.

*Se han informado 6 planes, 1 de diputación foral y 5 planes de entidades locales.*

Beste alde batetik, Emakunde buruzagitza- eta koordinazio-lanetan ari da emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduera-protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bete dadila bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Ildo horretan, Erakundeak protokoloei buruzko txostenak egiten ditu. Hala, toki-administrazioek erreferentziarako esparru bat izango dute, baldin eta toki-administrazioek hala eskatzen badute. Aurten Durangaldeako mankomunitateari aholkularitza eman diogu protokoloa prestatzeko prozesuan.

*Por otra parte, Emakunde lidera y coordina las actuaciones referentes al proceso de homogeneización de los protocolos de actuación en materia de violencia contra las mujeres, impulsando con ello el cumplimiento del artículo 62 de la Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres que establece la adopción de estos protocolos. En esta línea el Instituto informa los protocolos para que las administraciones locales que los impulsen tengan un marco de referencia, siempre y cuando las administraciones locales así lo demanden. Este año se ha asesorado en el proceso de elaboración del protocolo de la mancomunidad de Durangaldea.*

Berdintasuneko Jardunbide Egokien Bankuari dagokionez, hobekuntzak egin dira diseinuan eta lantalde tekniko bat antolatu da Erakundearteko Batzordearen barruan.

*En cuanto a la aplicación del Banco de Buenas Prácticas en Igualdad, se han incluido mejoras en su diseño y se ha constituido un Grupo Técnico de Trabajo (GTT) en el marco de la Comisión interinstitucional.*

Berdingune ataria berritu dugu EAEn erreferentziako atari bihur dadin berdintasunarekin zerikusia duen guztian; izan ere, bertan bildu dira gure erkidegoan arlo horretan dauden baliabide, programa eta zerbitzu publiko guztiak.

*Se ha renovado el portal Berdingune para convertirlo en el portal de referencia de la CAE con relación a la igualdad, ya que aglutina los diferentes recursos, programas y servicios de carácter público existentes en esta materia en nuestra comunidad.*

«Kontratuetan eta diru-laguntzetan berdintasuna» gaiari buruzko atala aztertu, berrantolatu eta osatu dugu Emakunderen webgunean, eta gida bat prestatu dugu erabilera errazteko.

*Se ha analizado, reordenado y completado la sección de la web de Emakunde sobre "Igualdad en contratos y subvenciones" y se ha elaborado una guía para facilitar su uso.*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntzari dagokionez, bi mailatan lan egin dugu; alde batetik, prestakuntzako ikastaroak zuzenean antolatu ditugu, eta, bestetik, beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun dugu emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko prestakuntza-jarduaretan.

*Respecto a la labor de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres, se ha trabajado en dos niveles; por un lado, se han organizado directamente cursos de formación y, por otro lado, se ha colaborado con otras entidades en actividades de formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres.*

EHUrekin batera, «Gaurko mutilak, zer nolako gizonak izango dira bihar?» ikastaroa antolatu dugu, EHUren 2017ko udako ikastaroetan, Donostian (Miramar Jauregia).

*En colaboración con la UPV/EHU se ha organizado el Curso "Niños son, ¿qué hombres serán?" en los cursos de verano de la UPV/EHU 2017 en Donostia-San Sebastián (Palacio Miramar).*

EHUren «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online masterra»rekin elkarlanean aritu gara irakaskuntza lagunduz (2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteak), praktikak Emakunden eginez eta diru-laguntza izenduna emanez.

*Se ha colaborado con el "Máster on line en Igualdad de Mujeres y Hombres" (curso 2016-2017 y 2017-2018) de la UPV/EHU, a través del apoyo en la docencia, realización de prácticas en Emakunde y la concesión de una subvención nominativa.*

EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean, bi online ikastarorako materialak prestatu ditugu: bata emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, eta bestea gizonei, berdintasunari eta maskulinotasunei buruzkoa.

*En colaboración con la Dirección para la Igualdad de la UPV/EHU, se han elaborado materiales para dos cursos online, uno básico sobre igualdad de mujeres y hombres, y otro sobre hombres, igualdad y masculinidades.*

2008-2018 aldirako Berdintasuneko Prestakuntza Planaren esparruan, IVAPekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, bai eta «Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa» ikastaroaren, genero-ikuspuntua duten aurrekontuen tailerrari buruzko bi edizioen eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko ikastaroa»ren irakaskuntzan ere; azken horrek lau edizio izan ditu.

*En el marco del Plan de Formación en Igualdad 2008-2018, se ha colaborado con el IVAP en el diseño de la formación transversal sobre igualdad, así como en la docencia del curso sobre «Evaluación previa de impacto de género», de las dos ediciones del Taller sobre presupuestos con enfoque de género y del "Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres", del que se han hecho cuatro ediciones.*

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra (Deustuko Unibertsitatea) egiteko 15 laguntza eman ditugu.

*Se han concedido 15 ayudas para la realización del Máster en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.*

Generoari eta berdintasun-politikei buruzko ikerketa eta azterketa sustatu ditugu hauen bitartez:

*Se ha promovido la investigación y el estudio sobre género y políticas de igualdad a través de:*

Hiru beka eman ditugu generoarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako zenbait alderdi eta faktore aztertzen dituzten ikerketak egiteko.

*La concesión de tres becas de investigación que abordan el análisis de diversos aspectos y factores relativos al género y la igualdad de mujeres y hombres.*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikerlanen IV. lehiaketa deitu dugu.

*La convocatoria del IV certamen de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres.*

Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen sail eta organismoekin eta beste euskal erakunde publiko batzuekin egindako jarduerei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu:

*En cuanto a las actuaciones realizadas con los distintos departamentos y organismos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos y otras instituciones públicas vascas, cabe destacar las siguientes colaboraciones:*

Lehendakaritzarekin elkarlanean aritu gara Bakea eta Elkarbizitza Planaren jarraipen-batzordean, eta arlo horretan emandako laguntzak baloratzeko batzordeetan parte hartu dugu.

*Con Lehendakaritza se ha participado en la Comisión de seguimiento del Plan de Paz y Convivencia y en las comisiones de valoración de las ayudas concedidas en dicho ámbito.*

Eusko Legebiltzarrarekin elkarlanean aritu gara emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako egin duten lehen plana lantzen.

*Se ha colaborado con el Parlamento Vasco para la elaboración de su primer plan para la igualdad de mujeres y hombres.*

Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.

*Con la Secretaría de Acción Exterior se ha colaborado para el desarrollo de la Estrategia Basque Country.*

Lankidetzako Euskal Agentziarekin, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan parte hartu dugu, baita agentziako genero-ekitatearen aldeko prozesu batean ere,

*Con la Agencia Vasca de Cooperación, se ha participado en el Consejo Vasco de Cooperación al Desarrollo, así como en un proceso pro-equidad de género de la propia*

diagnostiko bat egitea eta genero-ekitatearen aldeko ekintza-plan estrategikoa harturik oinarri.

*agencia, basado en la realización de un diagnóstico y un plan de acción estratégico pro-equidad de género.*

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu gara III. Gazte Planaren barruko ekintzak ebaluatzen eta planifikatzen.

*Con el Departamento de Educación se ha colaborado en la evaluación y planificación de acciones en el marco del III Gazte Plana.*

Horrez gain, Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren 2016ko ebaluazioan sartu dira Emakunderen jarduketak.

*Asimismo, se han incorporado las actuaciones de Emakunde a la evaluación 2016 del Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo.*

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu gara genero-ikuspegia txerta dezan bere funtzionamenduan, horretarako diru-laguntza izendun bat eskainita, baita aldizkako koordinazioa eta aholkularitza ere.

*Con el Consejo Vasco de la Juventud se ha colaborado para integrar la perspectiva de género en su funcionamiento a través de la dotación de una subvención nominativa para tal fin y a través de coordinación y asesoramientos puntuales.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Kiroleko Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara, kirolaren eremuko profesionalei zuzendutako jardunaldi baten antolaketan parte hartuz, kirolaren kudeaketan eta praktikan berdintasunak ematen dituen era askotako onurei buruz hausnartzeko.

*En colaboración con la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura y Política Lingüística se ha participado en la organización de una jornada dirigida a profesionales del ámbito deportivo para reflexionar sobre los diversos beneficios que aporta incorporar la igualdad en la gestión y en la práctica deportiva.*

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lankidetzan, honako hauetan hartu dugu parte: Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Familien Euskal Kontseiluan, Immigraziorako Foroan eta Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan.

*Con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se ha tomado parte en el Consejo Sectorial de Personas Mayores, en el Consejo Vasco de Familias, en el Foro de Inmigración y en el Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano.*

Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara Europako Inbertsio Funtsetako programa operatiboak garatzen.

*Con la Dirección de Planificación e Innovación en el Empleo y con la Dirección de Economía en el desarrollo de los programas operativos de los Fondos Europeos de Inversión.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzaren Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako Zuzendariordetzaren artean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan, euskal autonomia-erkidegoko enpresetan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bermatzen dela zaintzeko, hari jarraipena egiteko batzordea abiarazi eta, beste jarduketa batzuen artean, jardunaldi bat egin dugu lan-ikuskariei berdintasunari buruzko prestakuntza emateko.

*En el marco del Convenio de colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la mujer y la subdirección de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de empleo y políticas sociales del Gobierno Vasco para la vigilancia permanente en las empresas de la comunidad autónoma de Euskadi de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres se ha puesto en marcha una comisión de seguimiento del mismo y se ha llevado a cabo una jornada de formación sobre igualdad dirigida a inspectoras e inspectores de trabajo, entre otras actuaciones.*

Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren esparruan, lanerako eta koordinaziorako hainbat bilera eta informazio-trukerako jarduketak egin ditugu, eta laguntza eman dugu laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzeko zenbait jarraibide berrikusteko.

*En el marco del Convenio entre Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y Emakunde-Instituto Vasco de la mujer, se han desarrollado varías reuniones de trabajo, coordinación y actuaciones de intercambio de información y de apoyo en la revisión de unas pautas para la incorporación de la perspectiva de género en la prevención de riesgos laborales, entre otras.*

EUSKALIT - Kudeaketa Aurreratuarekin lankidetza-hitzarmena sinatu, eta baterako zenbait jarduketa garatu ditugu hura betetzeko; besteak beste, kudeaketa aurreratuan genero-ikuspegia txertatzeko gidaliburu bat egin dugu, baita kudeaketa aurreratuko eta berdintasuneko jardunbide egokien bilatzaile bat ere, eta Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Biltzarrean parte hartu dugu. Han sinatu zen hitzarmena, eta han aurkeztu ziren adierazitako jarduketak ere.

*Con EUSKALIT-Gestión Avanzada se ha firmado un convenio de colaboración y se han desarrollado distintas actuaciones conjuntas para darle cumplimiento, entre ellas la elaboración de una guía para incorporar la perspectiva de género en la gestión avanzada, un buscador de buenas prácticas en gestión avanzada e igualdad y la participación en el Congreso de Gestión Avanzada de Euskalit en donde se firmó el convenio y se presentaron las actuaciones señaladas.*

KZguneak sarearekin elkarlanean aritu gara emakumeen elkarteei zuzendutako prestakuntza eman eta Nahiko!

*Con la red de KZguneak se ha colaborado para realizar formación dirigida a las asociaciones de mujeres y para*

programaren material digitalizatua probatzeko.

*poner a prueba los materiales digitalizados del programa Nahiko!.*

Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean aritu gara EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko prozesua abiarazte aldera: laguntza eman eta metodologia kontrastatu da.

*Con el Departamento de Hacienda y Finanzas se ha colaborado para la puesta de marcha de un proceso para integración de la perspectiva de género en los presupuestos de la CAE: se ha dado apoyo y contraste metodológico.*

Eustatekin elkarlanean jarraitu dugu genero-berdintasunaren Europako indizea kalkulatzeko. Era berean, eta Euskal Estatistika Kontseiluaren bitartez, 2018-2022 aldiko Euskal Estatistika Plana egiteko lanetan parte hartu dugu.

*Con Eustat se ha continuado con la colaboración para el cálculo del índice europeo de igualdad de género. Asimismo, y a través del Consejo Vasco de Estadística, se ha participado en la elaboración del Plan Vasco de Estadística 2018-2022.*

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren jardunaldi batean parte hartu dugu, Osasun Publikoko programetan genero-ikuspegia zeharka txertatzeari buruzkoan, «Berdintasunaren arloko Legegintza Esparrua» hitzaldiaren bidez.

*Se ha participado en una jornada del Departamento de Salud del Gobierno Vasco sobre la transversalización de la perspectiva de género en los programas de Salud Pública mediante la ponencia "Marco Legislativo en materia de Igualdad".*

Osakidetzarekin elkarlanean aritu gara diagnostikoa eta berdintasunerako barne- eta kanpo-plana egiteko.

*Se ha colaborado con Osakidetza para realizar el diagnóstico y el plan para la igualdad interno y externo.*

Landa-eremuko Emakumeen Batzordearekin elkarlanean aritu gara.

*Se ha colaborado con la Comisión de Mujeres Rurales.*

IHOBErekin elkarlanean aritu gara, administrazioaren kontratazioan berdintasunaren eta ingurumenaren arloko klausulak sar daitezela sustatzeko.

*Se ha colaborado con IHOBE para promover la inclusión de cláusulas de igualdad y medioambientales en la contratación administrativa.*

EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoarekin lankidetzan jarraitzen dugu, berdintasunerako eskubideak defendatzeko Emakunderen Arloak egiten dituen esku-hartzeen eta ematen dituen benetako adibideen bitartez.

*Se sigue colaborando en la Clínica Jurídica de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU mediante intervenciones y la aportación de casos reales por parte del Área para la defensa de los derechos de igualdad de Emakunde.*

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (DACIMA) elkarlanean aritu gara, Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa prestatzeko, hainbat lan-jardunalditan parte hartuz. Gainera, Aurrerabideren esparruan, 2016-2018 aldirako plangintzan jasotako ekintzak egiten jarraitu dugu, Aurrerabideren ebaluazio-proiektu pilotuan parte hartu dugu, Barne Komunikazioko Plana ezarri eta jarraipena egin zaio, Gardentasunaren Ataria sortu da, eta Emakundeko hainbat kidek parte hartu dute kudeaketa hobetzeko Eusko Jaurlaritzaren kolaboratzaileen sarean. Era berean, eta DACIMAren proposamenez, lankidetzan jardun dugu Q-Epea jardunaldian, Kalitatearen Europako Astearen barruan.

*Con la DACIMA, se ha colaborado en la elaboración del Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública a través de la participación en varias jornadas de trabajo. Además, en el marco de Aurrerabide, se ha continuado con las acciones previstas en la Planificación 2016-2018, se ha participado en el proyecto piloto de evaluación de Aurrrerabide, se ha llevado a cabo la implantación y el seguimiento del Plan de Comunicación Interna, se ha creado el Portal de la Transparencia, y varias personas de Emakunde han formado parte de la Red de Colaboradores/as del Gobierno Vasco en la mejora de la gestión. Asimismo, y a propuesta de la DACIMA, se ha colaborado en la Jornada Q-Epea dentro de la Semana Europea de la Calidad.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan aritu gara Emakunden Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana ezartzeko, eta jarduera ugari egin dira xede horrekin. Era berean, Emakunden Bikain ziurtagiriaren pilotaje bat egiteko elkarlanean aritu gara, «Euskararen Bidegorriak» proiektua abian jartzeko.

*Con el Departamento Cultura y Política Lingüística se ha colaborado para la implantación en Emakunde del Plan de Normalización del Uso de Euskera, para lo cual se han desarrollado numerosas actuaciones. Asimismo, se ha colaborado para la realización en Emakunde de un pilotaje del certificado Bikain, para la puesta en marcha del proyecto "Euskararen Bidegorriak".*

Barneko prestakuntza-planaren esparruan 2 prestakuntza-jarduera garatu ditugu Emakundeko langile guztientzat.

*En el marco del plan de formación interna se han desarrollado 2 actividades formativas dirigidas a todo el personal de Emakunde.*

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratu, katalogatu eta indexatu, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikuluak hustu, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die.

*El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas*

*usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece.*

Orotara 300 dokumentu eskuratu edo katalogatu dira, batez ere idatzizko dokumentuak, baina baita ikus-entzunezkoak ere.

*Se han adquirido y/o catalogado más de 300 documentos, sobre todo documentos escritos pero también audiovisuales.*

Informazioa eta bibliografiari buruzko aholkularitza emateko, «nahierarako» zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak prestatzeko eta eskatutako gaiei buruzko prentsa-oharrak aukeratzeko eskariei dagokienez, posta elektronikoz nahiz telefonoz jasotako 1.100 eskaerari erantzun diogu gutxi gorabehera, baita aretoan egindako kontsultei ere, eta 380 liburu eta bideo mailegatu ditugu.

*En respuesta a las demandas de información, asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos "a la carta", selección de noticias de prensa sobre temas solicitados. se han atendido 1.100 peticiones aproximadamente, realizadas tanto por correo electrónico como por teléfono, además de las consultas en sala y se han realizado 380 préstamos de libros y videos.*

Internet bidez, dokumentu-funtsean jasotako lan kopuru nabarmena (24.500 erregistro ABSYS datu-basean) jendearen esku jartzeko zerbitzuari eutsi diogu.

*Se ha mantenido el servicio de puesta a disposición del público, a través de Internet, de un número importante de obras de su fondo documenta (24.500 registros en la base de ABSYS).*

Dokumentazio Zentroak, Espainiako Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen Sareko kidea den aldetik, erantzuna eman die sare horretako beste zentroen bitartez egin diren eskaerei ere, eta sareko kideek urtero egiten dituzten topaketetan parte hartu du.

*El Centro de Documentación, como centro integrante de la Red de Bibliotecas y Centros de Documentación de mujeres del estado español, ha atendido a las diversas peticiones realizadas a través de los otros centros integrantes de dicha Red, y ha asistido a los Encuentros que se celebran anualmente entre las integrantes de dicha Red.*

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko diru-laguntza izendun baten bitartez.

*Se ha colaborado con el Centro de Documentación de Mujeres Maite Albiz a través de una subvención nominativa para la difusión de conocimiento.*

## 2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

## *2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2017» urteko txostena egin dugu.

*Se ha realizado el Informe anual Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE, 2017.*

Berdintasunerako VI. Plana gauzatuz botere publikoek egindako jardueren jarraipenari eta ebaluazioari dagokienez:

*Con relación al seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad:*

VI. Planaren garapenean inplikatuta dauden erakunde guztiek 2016an gauzatutako jarduerei buruzko informazioa bildu dugu. Guztira 110 erakundek hartu dute parte.

*Se ha procedido a la recogida de información sobre las actuaciones llevadas a cabo en 2016 por el conjunto de los poderes públicos implicados en el desarrollo del VI Plan en el que han participado un total de 110 entidades.*

Botere publikoen jarduera-memoria egin dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana gauzatuz, 2016. urteari dagokionez.

*Se ha elaborado la Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad de mujeres y hombres correspondiente al año 2016.*

Eusko Jaurlaritzako sailen jardunaren jarraipen-dokumentua ere egin dugu 2016ko ekitaldiari dagokionez.

*Se ha realizado asimismo el documento de seguimiento de la actuación de los departamentos del Gobierno Vasco, correspondiente al ejercicio 2016.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen garapenaren eta ezarpenaren ebaluazioari dagokionez, jardunaldi bat antolatu dugu egindako lau ebaluazio-lan osagarriak aurkezteko (ebaluazio bat kuantitatiboa, bestea kualitatiboa eta bi espezifiko).

*En cuanto a la evaluación del desarrollo e implementación de la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres, se ha organizado una jornada para la presentación de los cuatro trabajos de evaluación complementarios realizados (una evaluación cuantitativa, otra cualitativa y dos específicas).*

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren jarraipen-txostena eta betetze-mailari buruzko ebaluazio-txostena egin ditugu.

*Se ha realizado el informe de seguimiento y evaluación anual del nivel de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.*

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutza handitzen jarraitu dugu, eremu guztietan datu homogeneoak bildu behar direla esanez behin eta berriro, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako programen eta zerbitzuen irismenari eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egin ahal izateko moduan. Abian jarri dugu, orobat, baliabideen etengabeko ebaluazioa egiteko datuen bilketa, eta hirugarren mailako iturrien eta Segurtasun Sailaren datuekin txostenak egin dira.

*Se ha continuado avanzando el conocimiento de la violencia contra las mujeres insistiendo en la recogida de datos homogénea para todos los ámbitos que permita realizar la evaluación del alcance y la eficacia de los programas y servicios dirigidos a las víctimas de la violencia contra las mujeres. Se ha puesto, así mismo, en marcha la recogida para la evaluación continua de los recursos y se han realizado informes con datos de fuentes terciarias y del Departamento de Seguridad.*

2016. urteko jarduerari buruzko memoriak egin ditugu: Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearena, Begira - Publizitate eta komunikabide ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearena, eta Berdintasun eskubideak defendatzeko arloarena.

*Se han elaborado las memorias anuales de actividad para el año 2016 de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación Begira y Área para la defensa de los derechos de igualdad.*

### 3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN KOORDINAZIOA BULTZATZEA

### *3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin zuen, eta bertan, beste gai batzuen artean, VII. Berdintasun Planaren zirriborroa aurkeztu eta lantalde tekniko berriak eratu ziren.

*La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró una sesión ordinaria en la que, entre otras cuestiones, se presentó en borrador del VII Plan para la igualdad y se constituyeron nuevos Grupos Técnicos de Trabajo (GTT).*

Batzordearen barruan, lantalde tekniko hauek sustatu eta koordinatu dira:

a) Erakundearteko Talde Teknikoa (ETT): 2 bilera.

b) Hitzarmenetako, diru-laguntzetako eta sektore publikoko kontratuetako berdintasun-neurriei buruzko lantalde teknikoa: 1 bilera.

c) Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankuari buruzko lantalde teknikoa: 1 bilera.

d) Berdintasun-politiketan gutxieneko kalitate estandarrak ezartzeko eta erakundearteko koordinazioa hobetzeko lantalde teknikoa: 1 bilera.

e) Egitura-funtsetako berdintasunari buruzko lantalde teknikoa: 3 bilera.

*En el marco de la comisión, se han impulsado y coordinado los siguientes grupos técnicos:*

*a) Grupo Técnico Interinstitucional (GTINS): 2 reuniones.*

*b) GTT sobre medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y contratos del sector público: 1 reunión.*

*c) GTT sobre el Banco de Buenas Prácticas en Igualdad: 1 reunión.*

*d) GTT para el establecimiento de estándares mínimos de calidad de las políticas de igualdad y para la mejora de la coordinación interinstitucional: 1 reunión.*

*e) GTT sobre la igualdad en los Fondos Estructurales: 3 reuniones.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin zuen, eta hartan, besteak beste, VII. Berdintasun Planaren zirriborroa, sailen 2017ko programa-dokumentuak eta 2015eko jarraipen-txostena aurkeztu zituen.

*La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres celebró una sesión ordinaria, en la que entre otras cuestiones, se presentaron el borrador del VII Plan para la igualdad, los documentos -programa de los departamentos correspondientes a 2017 y el informe de seguimiento de 2015.*

Batzordearen barruan, lantalde tekniko hauek sustatu eta koordinatu dira:

a) Sailarteko Talde Teknikoa (STT): 4 bilera.

b) Plangintza eta ebaluazioa hobetzeko lantalde teknikoa: 2 bilera.

c) Legealdirako Gobernantza lehentasunak identifikatzeko lantalde teknikoa: 2 bilera.

d) Genero-ikuspegia barne hartzen duten aurrekontuei buruzko lantalde teknikoa: 3 bilera.

*En el marco de la comisión, se han impulsado y coordinado los siguientes grupos técnicos:*

*a) Grupo Técnico Interdepartamental (GTI): 4 reuniones.*

*b) GTT para la mejora de la planificación y la evaluación: 2 reuniones.*

*c) GTT para la identificación de prioridades de Gobernanza para la Legislatura: 2 reuniones.*

*d) GTT3 sobre presupuestos con enfoque de Género: 3 reuniones.*

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten

*La Comisión de Seguimiento del II Acuerdo*

emakumeei harrera hobea egiteko EAEko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak bilkura bat egin du eta bertan oniritzia eman dio Erakundearteko Talde Teknikoak adostutako dokumentuari; hots, Euskadin genero-indarkeriaren biktima izandakoen seme-alaben giza eskubideak babesteko ikuspegiaren eta jarduketa-lerroen ingurukoari.

*Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE ha celebrado una sesión en la que se ha aprobado el documento consensuado por el grupo GTI sobre el enfoque y líneas de actuación para la protección de los derechos humanos de los hijos e hijas víctimas de violencia de género en Euskadi.*

Horren barruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 3 bilera egin ditu, eta lan hauek gauzatu: (1) Lanean jarraitu du aniztasun funtzionala duten eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktima ere izan diren emakumeei arreta hobea emateko. Erakundearteko Talde Teknikoak desgaitasunaren alorreko adituekin eta desgaitasuna duten pertsonen elkarteekin batera adostutako dokumentu bat onartu du, orotariko desgaitasunak barne harturik: gaixotasun mentala, desgaitasun intelektuala eta garapenekoa, zentzumen-desgaitasuna eta desgaitasun fisiko eta organikoa. Jarraipen Batzordeari helaraziko zaio. (2) Halaber, «Baliabide judizialak eta letraduen laguntza ebaluatzeko txostena» itzuli da.

*En el marco de la misma, se ha impulsado y dinamizado el trabajo del GTI, Grupo Técnico Interinstitucional, que ha celebrado 3 reuniones en las que se han realizado los siguientes trabajos: (1) Se ha seguido trabajando en la mejora de la atención a las mujeres con diversidad funcional víctimas de violencia de contra las mujeres. Se ha aprobado un documento consensuado por el grupo GTI junto con personas expertas en discapacidad y asociaciones de personas con discapacidad, que integra todas las discapacidades: la enfermedad mental, la discapacidad intelectual y del desarrollo, la discapacidad sensorial y la discapacidad física y orgánica y se elevará a la Comisión de Seguimiento.(2) Así mismo, se ha realizado la devolución del "Informe de Evaluación de los recursos judiciales y asistencia letrada".*

Harrera Baliabideen Talde Teknikoak baterako lan bilera bat egin du II. Akordioaren Erakundearteko Talde Teknikoarekin, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez euskal legeria hobetzeko partaidetza-diagnostikoaren esparruan.

*El GTRA, Grupo Técnico de Recursos de Acogida, ha realizado 1 reunión de trabajo conjunta con el GTI del II Acuerdo en el marco del diagnóstico participativo para el proceso de mejora de la Legislación Vasca Frente a la Violencia contra las mujeres.*

Informazio Sistemen Taldeak lan-bilera bakarra egin du. Aurten, 2017an, bigarren urtez jarraian erakunde guztietako datuak biltzen jarraitzea izan da gure zeregin nagusia. Horretarako, 2015ean adostutako gutxieneko irismen-adierazleak erabili dira. Ondorioz, hiru txosten egin dira: bata arretaren irismenari buruz, beste bat lehendik ere badauden programa eta zerbitzuei buruz, eta hirugarren txosten bat EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren egoerari buruz, mundu osoko testuinguruan kokatuta.

*El GSI, Grupo de Sistemas de Información, ha realizado una única reunión de trabajo. El principal cometido de este año 2017 ha sido continuar, por segundo año consecutivo, con la recogida de datos de todas las instituciones utilizando los indicadores mínimos de alcance consensuados en el año 2015. Como resultado, se han realizado tres informes: uno sobre el alcance de la atención, otro sobre los programas y servicios existentes y un tercer informe sobre la situación de la violencia contra las mujeres en la CAE en el contexto mundial.*

Euskal Autonomia Erkidegoko zein beste erkidego batzuetako profesionalei, erakundeei eta instituzioei emakumeen aurkako indarkeriaren arloko aholkularitza eman diegu.

*Se ha asesorado a profesionales, entidades e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de otras comunidades, en materia de violencia contra las mujeres.*

Begirak, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak, urteko ohiko bi bilkurak egin ditu. Horien barruan, proposamenak kontrastatu eta ekarpenak jasotzeaz gain, erabakiak hartu zituzten abian jarritako txosten eta azterlanei, kode deontologikoa ezartzeko prozesuari, bidean dauden kexa-espedienteei, Begirarako urteko lan-planari eta bere urteko memoriari zein batzordearen beraren difusioari dagokienez.

*La Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación/Begira ha celebrado sus dos reuniones ordinarias anuales. En el marco de las mismas, se contrastaron propuestas, se recogieron aportaciones y se tomaron acuerdos relativos a los informes y estudios puestos en marcha, al proceso de implantación del código deontológico, a los expedientes de quejas en curso, al plan anual de trabajo para Begira y su memoria anual y a la difusión de la propia comisión.*

Online plataforma kudeatu eta dinamizatu dugu Begirako langileen elkarlanerako.

*Se ha gestionado y dinamizado la plataforma on-line para el trabajo colaborativo del personal de Begira.*

Aholku-Batzordeak (Emakunderen eta emakumeen elkarteen arteko komunikazio-bidea izaki) ohiko bilera egin du eta lurraldeko Aholku Azpibatzordeekin eta lurralde bakoitzeko batzorde eta lantaldeekin ere bildu da.

*La Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, ha llevado a cabo una reunión ordinaria, así como, las reuniones correspondientes a las Subcomisiones Territoriales.*

Berritu egin dugu Emakundek eta Eudelek 2005ean sinatutako lankidetza-hitzarmena; hots, Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea abian jarri eta finantzatzekoa.

*Se ha renovado el Convenio de Colaboración que fue suscrito en 2005 por Emakunde y Eudel para la puesta en marcha y financiación de Berdinsarea / Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.*

Sarearen barruan eratutako batzordeetan eta lantaldeetan parte hartu dugu, eta nabarmentzekoa da zer-nolako elkarlana gauzatu den genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak toki-mailan aplika daitezela sustatzeko; haren ondorioz, prozedura eta tresna espezifiko bat atera da ebaluazioak egiteko.

*Se ha participado en las distintas comisiones y grupos de trabajo constituidos en el seno de la red, entre los que cabe destacar el trabajo colaborativo desarrollado para promover la aplicación de evaluaciones previas de impacto en función del género a nivel local que han dado como resultado un procedimiento y herramienta específica para la realización de dichas evaluaciones.*

Eudelekin lankidetza-hitzarmena berritu dugu populazio txikieneko udalerrientzako dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua lagundu eta finantzatzeko, eta jardueren gauzatze-mailaren jarraipena egin dugu.

*Se ha renovado el Convenio de colaboración con Eudel para apoyar y financiar el servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y se ha realizado seguimiento de la ejecución de las actuaciones.*

Eudeli diru-laguntza izenduna eman zaio, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko Berdintasun Batzordea kudeatzen laguntzeko.

*Se ha otorgado una subvención nominativa a Eudel para apoyarle en la gestión del Comité de Igualdad del Consejo de Municipios y Regiones de Europa.*

Nazioarteko lankidetzaren esparruan hainbat jarduera egin ditugu:

*Se han llevado a cabo diversas actividades en el marco de la colaboración internacional:*

Diru-laguntza eman dugu indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta neskentzako oinarrizko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratu Globala garatzeko. Gainera, aurreko urteetan egindako lanarekin jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan programaren kontrastea egiten hasi gara programa horren esparruan. Hala, EAEn egiten den esku-hartzea berrikusi eta hobekuntza-proposamenak abiarazi dira, EAEn bizirik atera diren biktimei ematen zaien arreta aipatutako nazioarteko estandarretara egokitzeko. Horretarako, lantaldeak eratu dira osasunean, gizarte-zerbitzuetan, polizian, justizian eta koordinazioan eta gobernantzan lan egiten duten EAEko erakundeekin. Emakumezko herritarren ordezkariekin ere kontrastea egin da. 2017ko abenduaren 15ean saio monografikoa egin zen, justiziaren eremua ardatz harturik, eta 2017ko urriaren 18an jendaurreko bilera egin zen Luis Morarekin, Nazio Batuen Biztanleria Funtseko Genero, Giza Eskubide eta Kultura zuzendariarekin (UNFPA).

*Se ha otorgado una subvención para el desarrollo del Programa Conjunto Global de las Naciones Unidas sobre Servicios Esenciales para Mujeres y Niñas Víctimas de la Violencia. Además, siguiendo con el trabajo realizado en años anteriores, en el marco de dicho programa, se ha iniciado la puesta marcha del contraste del programa a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Así se ha revisado la intervención que se presta en la CAPV y se han iniciado propuestas de mejora para adecuar la atención prestada a las víctimas supervivientes en Euskadi a los citados estándares internacionales. Para ello se han realizado grupos de trabajo con las entidades de la CAPV que trabajan en salud, servicios sociales, policía, justicia y coordinación y gobernanza. Se ha realizado también un contraste con representantes de la ciudadanía de mujeres. El 15 de diciembre de 2017 se realizó una sesión monográfica centrada en el ámbito de la justicia y el 18 de octubre de 2017 tuvo un lugar un encuentro público junto con Luis Mora, Director de Género, Derechos Humanos y Cultura del Fondo de Población de las Naciones Unidas (UNFPA).*

Garapenerako Nazio Batuen Programarekin elkarlanean aritu gara DELGEN ekimenaren esparruan (Tokiko garapena genero-ikuspegitik). Bideokonferentzia bidez bilerak egin eta baterako laneko hainbat agiri kontrastatu dira.

*Se ha colaborado con el Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD) en el marco de la iniciativa DELGEN (Desarrollo Local desde la perspectiva de género). Se han realizado varias reuniones por videoconferencia y el contraste de distintos documentos de trabajo conjunto.*

Lankidetza-hitzarmen bat sinatu dugu Mexikoko gobernuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko.

*Se ha suscrito un convenio de colaboración con el Gobierno de México para el intercambio de experiencias y conocimientos en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres.*

Munduko Landagunearekin lankidetzan jarraitu eta babesa eman diegu, familia-nekazaritzaren eta landa-ingurunearen aldeko ekimenak, ekintzak eta proiektuak sustatzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenaren baitan.

*Se ha seguido colaborando y apoyando al Foro Rural Mundial, en el marco del Acuerdo de colaboración suscrito para el impulso de iniciativas, acciones y proyectos orientados al desarrollo de la agricultura familiar y del ámbito rural.*

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin elkarlanean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 61. bilkuran parte hartu dugu. Nazio Batuak urtero antolatzen du New Yorkeko egoitzan, emakumezkoek munduan duten egoerari buruzko jarraipena egiteko.

*En colaboración con la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, se ha participado en la 61 sesión de la Comisión sobre la Condición Jurídica y Social de la Mujer que Naciones Unidas organiza anualmente en su sede de Nueva York con el fin de hacer un seguimiento de la situación de las mujeres en el mundo.*

Garapenerako Banku Inter Amerikarrak Washingtonen antolatutako lan-jardunaldi batean parte hartu dugu, EAEko kontratazio publikoan berdintasun-klausulak ezartzen izandako esperientzia ezagutzera eman eta Amerikar kontinenteko beste herrialde batzuetan ere jardunbide egoki hori ezarri ahal izan dezaten.

*Se ha participación en una jornada de trabajo organizada en Washington por el Banco Inter-Americano de Desarrollo para dar a conocer la experiencia del País Vasco en la implantación de cláusulas de igualdad en la contratación pública, a los efectos de facilitar que dicha buena práctica pueda ser replicada en otros países del continente americano.*

Washingtonera egindako bisitaldia dela-eta, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin elkarlanean lan-bilerak egin dira Ameriketako Estatuen Erakundearen ordezkariekin, erakunde horretako Emakumezkoen Batzorde Inter Amerikarrarekin, New Jerseyko Seton Hall Unibertsitateko Euskal Ikasketen taldearekin eta Wilson Center gizarte-ikerkuntzako zentroarekin.

*Con ocasión de la visita a Washington, y con la colaboración de la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, se han mantenido reuniones de trabajo con representantes de la Organización de Estados Americanos, Comisión Interamericana de Mujeres de la OEA, Grupo de Estudios Vascos de la Universidad de Seton Hall de Nueva Jersey y con el Centro de investigación social Wilson Center.*

Latinoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin (SEGIB) elkarlanean aritu gara martxoaren 8ko kanpainan, Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde horren artean sinatutako esparru-akordioaren barruan.

*Se ha colaborado en la campaña del 8 de Marzo con la Secretaría General Latinoamericana (SEGIB), en el marco del Acuerdo Marco suscrito entre el Gobierno Vasco y dicho organismo.*

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera, «Emakumeen eta gizonen berdintasuna: funtsezko auzia Garapen Jasangarriko Helburuen ezarpenean» jardunaldia antolatu dugu, NBE EMAKUMEAK erakundeko ordezkarien parte-hartzearekin.

*Se ha organizado, junto con la Secretaría General de Acción Exterior, la jornada "La igualdad de mujeres y hombres: una cuestión clave en la implantación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible" con la participación de representantes de ONU MUJERES.*

Jardunaldi birtuala antolatu dugu NBE EMAKUMEAKen Europako eta Erdialdeko Asiako eskualde-bulegoarekin esperientziak trukatzeko.

*Se ha organizado una jornada virtual para el intercambio de experiencias con la oficina regional para Europa y Asia Central de ONU MUJERES.*

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako ELGEren «EBko herrialdeetako lankidetza deszentralizatuaren joera berriei buruzko azterlana» ikerketan parte hartu dugu; bereziki, EAEn garapenerako lankidetzaren sektorean genero-ikuspegia txertatzeari begira izandako bilakaerari dagokionez.

*Se ha participado en la investigación de la OCDE "Estudio sobre las tendencias recientes de la cooperación descentralizada en los países de la UE", financiada por la AVCD, en particular, por lo que respecta a la evolución de la incorporación de la perspectiva de género en el sector de la cooperación para el desarrollo en la CAE.*

Saharaui herriari laguntza emateko euskal sarean parte hartzen jarraitu dugu.

*Se ha seguido participando en la Red vasca de apoyo al pueblo saharaui.*

Europar Batasunari dagokionez, honako jarduera hauek egin ditugu:

*Por lo que respecta a la Unión Europea, se han llevado a cabo las siguientes actuaciones:*

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin elkarlanean, harremanetan egon gara Nordic Equality-ko ordezkariekin.

*Con la colaboración de la Delegación de Euskadi para la Unión Europea se han mantenido contactos con representantes de Nordic Equality.*

Genero Berdintasuneko Europako Institutuak kudeatzen duen Euro Gender sarean parte hartu dugu, eta harremanak izan ditugu Eustatek Europar Batasuneko berdintasun-indizearen kalkulua errazteko.

*Se ha participado en la red Euro Gender que gestiona del Instituto Europeo de Igualdad de Género (EIGE) y se han mantenido contactos a fin de facilitar el cálculo por parte de Eustat del índice de igualdad de la Unión Europea.*

Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) eta Eskualde Garapenerako Gizarte Funtsaren (EGEF) jarraipen-batzordeetan parte hartu dugu.

*Se ha participado en los Comités de Seguimiento del Fondo Social Europeo (FSE) y del Fondo de Desarrollo Regional (FEDER).*

Emakundek, Egitura Funtsetako Berdintasun Politiken Sareko kide den aldetik, Sareak Kanarietan egindako Osoko Bilkuraren 13. eta 14. bileretan parte hartu du, baita

*Emakunde, como institución miembro de la Red de Políticas de Igualdad en los Fondos Estructurales, ha participado en las 13ª y 14ª reuniones del Plenario de la*

sarearen barruan eratutako lantaldeetan ere.

Babes instituzionala eman zaie Europako hiru proiekturi: «Artea eta aktibismo digitala, indarkeria matxisten oinarriak ezartzen dituzten imajinarioa, gizarte-arauak eta genero-estereotipoak hausteko», Oxfam Intermón-ek zuzendua; «Support to the Inter-agency Gender Equality Commission. Georgia» EVOLUXER SLk zuzendua; eta «Public Spaces: Culture and Integration in Europe», Pompeu Fabra Unibertsitateko Sonia Arribas-ek zuzendua.

Europar Batasunaren egitura- eta inbertsio-funtsetako aurrekontuetan genero-ikuspegia barne hartzeari buruzko konferentzia batean parte hartu dugu, Bonn-en (Alemania). Genero Berdintasunerako Europako Institutuak antolatu du (EIGE).

Estatuko antzeko beste erakunde eta organismoekiko lankidetzari dagokionez, honako jarduera hauek egin ditugu:

Hezkuntzaren esparruan harremanetan egon gara Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatutako Intercambia sarearekin.

Valentziako Gobernuaren eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren arduradun politikoei eta profesionalei aholkularitza eman diegu Emakunderen lanaren eta Eusko Jaurlaritzak berdintasun-politiken arloan izandako esperientziaren inguruan.

Bost orduko prestakuntza-ekintza bat eman zaie Valentziako Gobernuko politikariei, buruei eta teknikariei, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaren arloan.

*Red en Canarias así como en los grupos de trabajo constituidos en el seno de esta Red.*

*Se ha prestado apoyo institucional a tres propuestas de proyectos europeos "Arte y activismo digital para romper imaginarios, normas sociales y estereotipos de género que asientan las bases de las violencias machistas" liderado por Oxfam Intermón; "Support to the Inter-agency Gender Equality Commission. Georgia" liderada por EVOLUXER S.L; "Public Spaces: Culture and Integration in Europe" liderado por la doctora Sonia Arribas de la Universidad Pompeu Fabra.*

*Se ha participado en una conferencia europea, celebrada en Bonn (Alemania) sobre Prepuestos con enfoque de género en los Fondos Estructurales y de Inversión de la Unión Europea, organizada por el Instituto Europeo de Igualdad de Género (EIGE).*

*En cuanto a la colaboración con otras instituciones y organismos análogos del Estado, se ha realizado la siguiente actuación:*

*En el ámbito de la educación, se ha mantenido el contacto con la Red Intercambia impulsada por el Instituto de la Mujer y el Ministerio de Educación.*

*Se ha asesorado a responsables políticos y profesionales del Gobierno Valenciano y del Instituto Navarro para la Igualdad con relación al trabajo de Emakunde y de la experiencia de Gobierno Vasco en el desarrollo de políticas de igualdad.*

*Se ha impartido una acción formativa de 5 horas a personal político, jefaturas y personal técnico del Gobierno Valenciano en materia de Evaluación previa de impacto en función del género.*

**4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNAREN HELBURUA LANTZEKO**

Nahiko! Hezkidetza Programari dagokionez:

2015-2017 ikasturteetarako deialdian zentro parte-hartzaileekin aurreikusitako jarduerak gauzatu dira. Programan 36 ikastetxek hartu dute parte, eta 137 irakasle hasi dira Lehen Hezkuntzako 2.780 ikaslerekin programa ezartzen. Irakasle parte-hartzaile guztiei zuzendutako prestakuntza orokorreko 2 jardunaldi egin ditugu, baita hiru hileko 6 prestakuntza-mintegi ere (Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko bi). Gainera, amaieran Topaketa egin dugu Donostiako Kursaalen deialdian parte hartu eta bertaratzeko aukera izan duten ikastetxe guztiekin.

2017-2019 ikasturteetarako deialdia egin dugu, eta azkenean, 33 zentrok, 225 irakaslek eta 4000 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute. Haren barruan, hezkidetzako prestakuntza orokorreko jardunaldi bat egin dugu irakasle guztientzat, baita 7 mintegi ere (bat Lehen Hezkuntzako maila bakoitzeko eta beste bat orokorra, indargarri gisa).

***4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS***

*Respecto al Programa coeducativo Nahiko!:*

*Se han desarrollado las actuaciones previstas con los centros participantes en la convocatoria para los cursos 2015-2017. Han participado en el Programa 36 centros, 137 profesoras y profesores que han comenzado la implantación del programa con 2.780 alumnas y alumnos de Primaria. Se han llevado a cabo 2 jornadas de formación general para todo el profesorado participante y 6 seminarios de formación trimestrales (2 por cada ciclo educativo de primaria). Además se ha realizado un encuentro final, Topaketa, en el Kursaal de Donostia con la colaboración de todos los centros que han participado en esta convocatoria y que han podido acudir.*

*Se ha realizado la convocatoria 2017-2019 en la que finalmente tomarán parte 33 centros, 225 profesoras y profesores y más de 4000 alumnas y alumnos. Dentro de la misma, se ha llevado a cabo una jornada de formación general en coeducación para todo el profesorado y 7 seminarios (uno por cada curso de Primaria, más uno de refuerzo general).*

Aldaketak egin ditugu Nahiko! ekimeneko material digitalizatuetan, 2017ko erabilgarritasun esperientziatik abiatuta egokitu daitezen.

*Se han realizado modificaciones a los materiales Nahiko! digitalizados para adecuarlos a partir de la experiencia de usabilidad de 2017.*

Begira – Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearen lan-plana garatzeko, hedabideekin eta publizitate-agentziekin lan-sare bat eratu dugu, estrategiak garatzeko eta, haien bidez, kode deontologikoa eta sexismorik gabeko komunikazioa eta publizitatea egiteko adostu diren dekalogoak errazago betetzeko. Lan-bilera bat ere egin dugu.

*En desarrollo del plan de trabajo de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación, Begira, se ha continuado con la red de medios de comunicación y agencias de publicidad para desarrollar estrategias que faciliten el cumplimiento del código deontológico y de los decálogos consensuados para la realización de una comunicación y una publicidad no sexista. Se ha llevado a cabo una reunión de trabajo.*

Bideo batzuk egin dira haurrentzako publizitateari eta hautets-kanpainen informazio-tratamenduari buruzko gomendioak jasotzeko. Halaber, bideoak egin ditugu bai kode deontologikoa bai komunikazioaren dekalogoa azaltzeko.

*Se han elaborado vídeos con las recomendaciones para la publicidad dirigida al público infantil así como para el tratamiento informativo de las campañas electorales. Así mismo se han desarrollado videos explicativos tanto del Código deontológico como del decálogo de comunicación.*

2016an publizitate-agentziei eta komunikabideei Berdintasunaren inguruan prestakuntza emateko abian jarri genuen programarekin jarraitu dugu. Aurrez aurreko prestakuntza saioak egin dira hala eskatu duten komunikabide eta agentzia guztien egoitzan.

*Se ha continuado con el programa formativo en igualdad dirigido a agencias de publicidad y a medios de comunicación iniciado en 2016. Se han desarrollado sesiones de formación presencial en la sede de todos los medios de comunicación y agencias que lo han solicitado.*

XIV. Berdintasun Foroa antolatu dugu, "Berdintasuna nire baitan ere hasten da" izenburupean.

*Se ha organizado el XIV Foro para la Igualdad con el título de "La igualdad también empieza en mí".*

Foroaren hasiera egunean, 2017ko irailaren 25ean, parte hartzen zuten erakundeen arteko topaketa egin zen, elkarren ezagutza sustatu, sinergiak sortu eta erakundeok ikustera emateko.

*El día de la inauguración del Foro, el 25 de septiembre de 2017 se celebró un encuentro entre las entidades participantes con el objetivo de favorecer el conocimiento mutuo, generar sinergias y dar visibilidad a dichas entidades.*

Foroa irailaren 25etik abenduaren 15era bitarte izan zen, eta 124 erakunde publiko eta pribatuk baino gehiagok parte hartu zuten; erakundeok 182 jardueratik gora antolatu dituzte 56 udalerritan, eta 10.000 parte-hartzaile baino gehiago bildu dituzte.

*El foro tuvo lugar del 25 de septiembre al 15 de diciembre con la participación de más de 124 entidades públicas y privadas, que han organizado 182 actividades en 56 localidades y en las que han participado más de 10.000 personas.*

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio- eta informazio-jarduera hauek antolatu ditugu:

*Se han organizado las siguientes actividades de sensibilización e información orientadas a fomentar la igualdad de mujeres y hombres:*

Martxoaren 8ko kanpaina, «Emakumeen Nazioarteko Eguna», «Berdintasuna nire baitan ere hasten da» lelopean, irratian, Interneten eta prentsan. Lelo bera erabili da Berdintasun Fororako ere.

*Campaña del 8 de marzo "Día Internacional de las Mujeres" bajo el lema "La igualdad también empieza en mí" en radio, internet y prensa y que ha servido también de lema para el Foro para la Igualdad.*

Emakundeko zuzendariak iritzi-artikulua argitaratu zuen martxoaren 8an prentsa idatzian: «Berdintasuna lortzeko, gizarte berrikuntza».

*Publicación el 8 de marzo de un artículo de opinión de la Directora de Emakunde en la prensa escrita bajo el título "Innovación social para conseguir la igualdad".*

Azaroaren 25eko kanpaina egin dugu «Beldur Barik» lelopean, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Hiru foru-aldundiek babestu dute, baita Eudelek ere, eta Hezkuntza Sailak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritzak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta EiTBk laguntza eman dute.

*Se ha realizado la campaña del 25 de noviembre bajo el lema "Beldur Barik" dirigida a la prevención de la violencia contra las mujeres en la juventud, con el apoyo de las tres diputaciones forales y Eudel, y con la colaboración del Departamento de Educación, de la Dirección de Juventud del Departamento de Empleo y Políticas Sociales, de la Universidad del País Vasco y de EiTB.*

Balio-aldaketari buruzko urteko kanpaina egin dugu telebistan, irratian eta interneten, lelo honekin: «Berdintasuna nire baitan ere hasten da».

*Campaña anual de cambio de valores en prensa, radio e internet bajo el lema "La igualdad también empieza en mí".*

EiTBren irratietako saioei babesa eman diegu, urte osoan zehar eman dezaten balioak aldatzeko mezuaren berri.

*Patrocinio de programas en las radios de EITB para difundir el mensaje de cambio de valores durante todo el año.*

Berdintasunerako 2016ko Emakunde Saria Marta Macho Matematikako doktoreari emateko ekitaldia egin dugu. Emakumeei eta zientziari buruzko sentsibilizazioak ardaztu du ekitaldia.

*Acto de entrega del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2016, a la doctora en matemáticas Marta Macho. Acto centrado en la sensibilización en torno a las mujeres y la ciencia.*

Emakunderen 2017ko Berdintasun Sariaren deialdia egin da, eta Virginia Imaz clown irakaslea izango da sariduna.

*Convocatoria del Premio Emakunde a la Igualdad, edición 2017 que se ha otorgado a la maestra clown Virginia Imaz.*

2016-2017ko eskola-agendak argitaratu eta banatu dira, berdintasunarekin zerikusia duten mezuak barne, DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat.

*Publicación y reparto de Agendas escolares 2016-2017 con mensajes relacionados con la igualdad para alumnado de 1. y 2. de la ESO.*

Emakunderen zuzendariaren artikulua euskal prentsa idatzian, «Emakumeen ahotsa» izenburupean, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna zela eta.

*Artículo de opinión de la Directora de Emakunde en la prensa vasca con el título “La voz de las mujeres” con ocasión del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres.*

Hedabideetan etengabe agertu gara iritzi-artikuluen, prentsaurrekoen, prentsa-oharren zein elkarrizketen eta unean uneko eskaerei emandako erantzunen bitartez. Horrez gain komunikazio-jarduera hauek ere egin ditugu:

*Se ha mantenido una presencia continuada en medios de comunicación a través de la publicación de artículos de opinión, ruedas de prensa y notas de prensa, además de entrevistas y respuestas a demandas puntuales. Asimismo, se han realizado las siguientes actuaciones de comunicación:*

Emakunde aldizkari digitala albiste eta elkarrizketez hornitu dugu.

*Mantenimiento de la revista digital Emakunde con noticias y entrevistas.*

Aldizkariaren edukiak buletin elektronikoetan (newsletterrak) bidali ditugu.

*Remisión de boletines electrónicos “newsletter” con los contenidos de la revista.*

Interneten eta sare sozialetan etengabe eman dugu berdintasunaren arloko azken albisteen berri; izan ere, webgunea eta Facebook, Twitter zein Instagrameko kontuak ditu Emakundek. Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo ditugu sarera, erakundeak bere kontua baitu YouTuben.

*Actualización constante de la actualidad en materia de igualdad en internet y redes sociales, contando Emakunde con una web, cuenta en Facebook, Twitter e Instagram. Asimismo, se han subido a la red los vídeos relacionados con la actividad de Emakunde, contando el instituto con una cuenta propia en el canal YouTube.*

Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak ere argitaratu ditugu gobernu irekiaren Irekia atarian.

*Publicación de noticias y actualizaciones referidas a Emakunde en el portal Irekia de Gobierno abierto.*

Berariazko prentsa-txostenak prestatu ditugu.

*Preparación de dosieres de prensa específicos.*

Argiri elkartearekin lankidetzan jardun dugu Irungo alarde mistoa egiteko diru-laguntza izendun baten bitartez.

*Se ha colaborado con la Asociación Argiri, a través de una subvención nominativa para la celebración del alarde mixto de Irun.*

Zinema Ikusezineko Jaialdiarekin elkarlanean aritu gara emakume errealizadore onenaren sariari babesa emanez.

*Se ha colaborado con el Festival de Cine Invisible apoyando el premio a la mejor mujer realizadora.*

Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizartearen eta gizonen inplikazioa sustatzeari dagokionez, Gizonduz ekimenaren barruan, honako jarduera hauek nabarmendu behar ditugu:

*En cuanto a la promoción de la implicación de la sociedad y de los hombres a favor de la igualdad y en contra de la violencia hacia las mujeres cabe destacar, en el marco de la iniciativa Gizonduz, las siguientes actuaciones:*

Programaren jardueraren gaineko urteko memoria egin dugu, eta horren berariazko webgunea eta sare sozialetako presentzia kudeatu ditugu (Facebook, Twitter, YouTube eta Vimeo).

*Se ha realizado la Memoria anual de actividad del programa, gestionado su espacio web específico y su presencia en las redes sociales (Facebook, Twitter, YouTube y Vimeo).*

2017ko sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa gauzatu dugu; horren barruan aurrez aurreko 47 ikastaro egin eta 337 prestakuntza-ordu irakatsi ditugu, eta 464 gizonek eta 362 emakumek hartu dute parte. Gainera, online sentsibilizazio-ikastaroa egiten jarraitu dugu.

*Se ha llevado a cabo el Programa de sensibilización y formación correspondiente a 2017, en el que se han realizado 47 cursos presenciales, se han impartido 337 horas de formación y han participado 464 hombres y 362 mujeres. Además, se ha seguido desarrollando el curso de sensibilización online.*

«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua egin dugu, matxismozko eta indarkeriazko jokabideak prebenitzeko asmoa duena, 6 ikastetxetan. Guztira 532 parte-hartzaile izan ditu eta 113 prestakuntza-ordu irakatsi dira.

*Se ha desarrollado el proyecto “Gazteak Berdintasunean 2.0”, dirigido a prevenir conductas machistas y violentas, en 6 centros de educativos. Han participado 532 personas, y se han impartido 113 horas de formación.*

Eudelekin elkarlanean, berdintasunaren aldeko gizon hautetsien taldea eratzeko laguntza eman da eta lau lansaio dinamizatu ditugu.

*En colaboración con Eudel, se ha facilitado la constitución de un grupo de hombres electos a favor de la igualdad y se han dinamizado cuatro sesiones de trabajo.*

Martxoaren 19a dela eta, sentsibilizazio-ekintza bat egin dugu sare sozialen bitartez, aitatasun erantzunkide eta berdinzalea sustatze aldera.

*Se ha realizado, con ocasión del 19 de marzo, una acción de sensibilización a través de las redes sociales con el fin de fomentar una paternidad corresponsable e igualitaria.*

Irratian eta prentsan artikuluak eta elkarrizketak egin, eta hainbat forotan parte hartu dugu; besteak beste, honako hauetan izandako parte-hartzea nabarmendu daiteke: «Tratu onak harremanetan» jardunaldi zientifikoan (EHUk antolatua); Indarkeria Matxistari buruzko II. Jardunaldietan, «Gizonen inplikazioa eztabaidagai» izenburupean (Zarauzko Udalak antolatua) eta IV. ASPEGI Foroan, «Gizonak ezinbestekoak dira benetako berdintasuna lortzeko» lelopean.

*Se ha realizado artículos y entrevistas en radio y prensa y participado en distintos foros, entre los que cabe destacar la participación en la Jornada Científica “Buenos tratos en las relaciones, organizada por la UPV/EHU, en las II Jornadas sobre Violencia de Machista “La implicación de los hombres a debate”, organizada por el Ayuntamiento de Zarautz y en el IV Foro ASPEGI "Ellos son indispensables para lograr una verdadera igualdad".*

Aholku-Batzordearen bilerak egiten jarraitu dugu (Batzorde hori Emakunderen eta emakumeen elkarteen arteko komunikazio-bidea izaki), bai eta lurraldeko Aholku Azpibatzordeekin eta lurralde bakoitzeko batzorde eta lantaldeekin ere. Gai hauei buruzkoak nabarmen daitezke: gizarte-bazterketaren arloan diharduten elkarteak, emakume alargunen elkarteak, hedabide eta elkarte-mugimenduak, emakume etorkinen ordezkariak, landa-eremuko emakumeen ordezkariak eta emakume ijitoen ordezkariak.

*Se ha continuado con las reuniones de la Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, las reuniones con las Subcomisiones Consultivas territoriales así como con las distintas comisiones y grupos de trabajo de cada territorio, entre los que destacan los relativos a: Asociaciones que actúan en el ámbito de la exclusión social, Asociaciones de mujeres viudas, Medios de comunicación y movimiento asociativo, Representantes de mujeres inmigrantes, Representantes de mujeres rurales y representantes de mujeres gitanas.*

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban lurralde-bilerak egin ditugu. Hiru lurraldeetan 2018rako helburuak eta ekintzak hitzartu ditugu elkarte-mugimenduekin batera, eta prestakuntza eskaini diegu, diru-laguntzak justifikatzeko eta eskatzeko prozesu telematikoari aurre egin ahal izateko, beharrezko ezagutza eta tresnekin.

*Se han realizado las reuniones territoriales en Bizkaia, Gipuzkoa y Álava. En los tres territorios se ha acordado con los movimientos asociativos, los objetivos y acciones para el año 2018, y se les ha ofrecido formación para afrontar el proceso telemático de justificación y solicitud de las subvenciones con los conocimientos y herramientas necesarias.*

Halaber, Aholku Batzordearekin elkarlanean aritu gara 3 lurraldeen arteko elkarlanerako tresna digitalei buruzko prestakuntza diseinatzeko, eta 2018an eramango dugu aurrera.

*Así mismo, se ha colaborado con la Comisión Consultiva en el diseño de una formación en herramientas colaborativas digitales entre los 3 territorios que se llevará a cabo en 2018.*

EAEko Emakumeen Elkarteen Gida eguneratu dugu.

*Se ha actualizado la Guía de Asociaciones de Mujeres de la CAE.*

Emakumeen elkarte eta sareentzako prestakuntza-proiektu berriak bultzatu eta lagundu ditugu, horiek ebaluatu ostean, esperientzian oinarritutako ikaskuntza-dinamikak erabiliz prestakuntza-ekintza berriak bultzatzeko.

*Se han impulsado y apoyado nuevos proyectos de formación para asociaciones y redes de mujeres para, tras su evaluación, impulsar nuevas acciones formativas utilizando dinámicas de aprendizaje experiencial.*

Euskadiko Emakume Ijitoen Batzordearekin lankidetzan aritu gara, egitura sendotzeko eta egindako sentsibilizazio-ekintzen edukiei buruzko aholkuak emateko.

*Se ha colaborado con la Comisión de Mujeres Gitanas del País Vasco, reforzando su estructura y asesorando en los contenidos de las acciones de sensibilización desarrolladas en este marco.*

Landa-eremuan emakumeen sareak bultzatzeko lana lagundu dugu, eta aholkularitza ere eman dugu sare horren helburu eta ekintzetan genero-ikuspegia txertatzeko.

*Se ha apoyado el trabajo de impulso de redes de mujeres en el ámbito rural, también se ha asesorado para que se integre la perspectiva de género en los objetivos y acciones de dicha red.*

Emakume alargunen sareei laguntzen jarraitu dugu.

*Se ha continuado apoyando las redes de mujeres viudas.*

Emakumeen elkartegintza sustatzeko eta EAEko esparru guztietan haien parte-hartzea indartzeko diru-laguntzak deitu ditugu. Deialdian eskaera aurkeztu duten 137 elkarteetatik, 122k jaso dute diru-laguntza.

*Se han convocado las subvenciones para fomentar el asociacionismo y potenciar la participación de las mujeres en todos los ámbitos de la CAE. Las asociaciones beneficiarias han sido 122 de entre las 137 que presentaron solicitud a la convocatoria.*

Berdinsarearen esparruan, 2017ko «Virginia Woolf Basqueskola» programaren proposamena diseinatu dugu (Euskadiko udaletako emakume hautetsientzako lehen prestakuntza-eskola da), baita hautetsi berriei harrera egiteko tailerrak ere.

*En el marco de Berdinsarea se ha diseñado y desarrollado la propuesta de programa 2017 para "Virginia Woolf Basqueskola", primera escuela de formación para mujeres electas municipales de Euskadi y talleres para la acogida de las nuevas electas.*

Emakume Elkarteentzako jardunaldi bat egin dugu: «Emakumeen ahalduntzea, interlokuzio soziopolitikorako eta benetako berdintasunerako bidea».

*Se ha llevado a cabo la jornada dirigida a asociaciones de mujeres sobre "Empoderamiento personal, vía para la interlocución sociopolítica y la igualdad real".*

Bertsozale Elkartearekin lankidetzan aritu gara diru-laguntza izendun baten bidez emakume bertsolariak ahalduntzeko aukera ematen duten prestakuntza-jardueretan laguntzeko, baita bertsolaritzan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak egiteko ere.

*Se ha colaborado con Bertsozale Elkartea a través de una subvención nominativa para proporcionarles apoyo en actividades formativas que posibiliten el empoderamiento de las mujeres bertsolaris y para avanzar en la incorporación de la perspectiva de género en la bertsolaritza.*

Centro Azkuna de Ocio y Cultura S.A. enpresarekin (aurretik La Alhóndiga Centro de Ocio y Cultura S.A.) lankidetzan aritu gara, diru-laguntza izendun baten bidez, Ezagutza Feministak Sarean proiektua egiteko.

*Se ha colaborado con el Centro Azkuna de Ocio y Cultura, S.A., (anteriormente La Alhóndiga Centro de Ocio y Cultura, S.A.), a través de una subvención nominativa, para la realización del proyecto Conocimientos Feministas en Red.*

Deustuko Unibertsitateak sustatzen duen Emakume Teknologoa sariarekin elkarlanean aritu gara.

*Se ha colaborado con el Premio a la Mujer Tecnóloga promovido por la Universidad de Deusto.*

Jakintzaren eta lanbide-jardueraren hainbat eremutan aditu diren emakumeen direktorioa jendarteratu, eguneratu eta handitzeko aukera ematen duen informatika-aplikazioa kudeatzen jarraitu dugu, emakumeek komunikabideetan eta bestelako jardueretan (zientifikoak, prestakuntzakoak eta abar) parte-hartze handiagoa izatea sustatzeko eta ahalbidetzeko.

*Se ha mantenido la gestión de la aplicación informática que permite difundir, actualizar y ampliar el directorio de mujeres expertas en diversos ámbitos del conocimiento y de la actividad profesional, a fin de promover y facilitar una mayor participación de las mujeres tanto en los medios de comunicación como en otras actividades (científicas, formativas, etc.).*

Berdintasunerako eskubideak defendatzeko arloak informazio-eskaera, salaketa eta kexa ugariri erantzun die:

*El Área para la defensa de los derechos de igualdad ha atendido numerosas solicitudes de información, denuncias y quejas:*

Telefono bidezko nahiz aurrez aurreko 300 kontsulta baino gehiagori eman die erantzuna, berehala nahiz ebazteko eskumena duten organo eta zerbitzuetara bideratuz.

*Se han atendido más de 300 consultas telefónicas y presenciales que han sido respondidas en el momento o derivadas a aquellos órganos y servicios competentes para su resolución.*

Idatziz, erantzuna eman zaio tratu-berdintasunari eta sexuaren ondoriozko bereizkeriarik ezari buruzko informazio eta aholkularitza espezializatua jasotzeko 68 eskaerari.

*Se ha respondido por escrito a 68 solicitudes de información y asesoramiento especializado en materia de igualdad de trato y no discriminación por razón de sexo.*

Sexuaren ondoriozko bereizkeriaren ustezko egoerei buruz aurkeztutako 25 salaketa eta 88 kexa erregistratu dira: Horietatik 65, gaiarengatik edo eskumenen eremu geografikoarengatik, Arartekora edo Emakumearen Institutura bideratu ditugu, gehienbat. 9 kasu artxibatu edo ezetsi dira. Gainerako kasuak ebazteko, gomendioak bidali dira.

*Se han registrado 25 denuncias y 88 quejas relativas a presuntas situaciones de discriminación por razón de sexo: 65 de ellas, por su temática o ámbito de competencia geográfica, han sido derivadas al Ararteko y/o al Instituto de la Mujer, mayormente. 9 casos han sido archivados o se ha producido desistimiento. El resto casos han sido resueltos mediante la emisión de recomendaciones.*

Nabarmendu behar da publizitateko eta hedabideetako erabilera sexistei buruzko 86 kexa izapidetu ditugula, eta ildo horretan gomendioak egin eta aholkularitza eman dugula.

*Es destacable que se han tramitado 86 quejas sobre usos sexistas en la publicidad y en los medios de comunicación en los cuales se han emitido recomendaciones y se ha prestado asesoramiento.*

Publizitatean eta hedabideetan sexismoa hautemateko eta horri buruzko kexak bidaltzeko gailu mugikorretarako aplikazioa eguneratu dugu. Uztailean abian jarri zenetik, hirukoiztu egin da jasotako kexa kopurua, 2016. urtean guztira jasotakoen aldean.

*Se ha actualizado la aplicación para dispositivos móviles para la detección y el envío de quejas sobre sexismo en la publicidad y en la comunicación. Desde su puesta en marcha en julio se han triplicado el número de quejas recibidas en relación con las recibidas en la totalidad del año 2016.*

Enpresetan eta erakundeetan berdintasun-politikak sustatzeari dagokionez, jarduera hauek egin ditugu:

537 enpresari baino gehiagori informazioa eta aholkularitza eman diegu berdintasunerako legeen inguruan eta emakumeen eta gizonen desberdintasunaren eta bereizkeriaren aurka borrokatzeko dauden neurrien inguruan.

Enpresa eta beste erakunde pribatu batzuentzako informazioa eta aholkularitza eman dugu, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko bat eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduera-plan bat egin ditzaten, diru-laguntzen deialdi baten bidez.

Emakumeen enplegua sustatzeko kontratu motei eta laguntzei buruzko gidaliburua eguneratu dugu.

EAEn emakumeen ekintzailetza bultzatzeko laguntzen mapa gidaliburua eguneratu dugu.

"Emakumeen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea" izaera aitortzeko 23 eskabide balioetsi ditugu, 11/2014 Dekretu berriaren arabera, eta 9 onartu dira.

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman dizkiegu, enpresei eta erakundeei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Aholkularitza-entitate homologatuen jarraipena egin dugu, oraindik homologaziorako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko: homologazio bat kendu eta bi berri homologatu ditugu.

14 enpresa eta erakunde baloratu ditugu, diagnostiko bat eta berdintasunerako plan bat egiteko homologatutako aholkularitza-erakunde bat kontratatzeko laguntzen deialdiaren barruan. Eskaera guztiak baloratu ondoren, diru-laguntza 12 erakunderi eman diegu, eta 2ri ukatu egin diegu diru-laguntzaren baldintzak ez betetzeagatik.

Euskaliten kudeaketa aurreratuko eredua berrikusi eta kudeatua aurreratuan genero-ikuspegia nola txertatu jasotzen duen gidaliburu bat prestatu, editatu, argitaratu eta jendarteratu da.

Enpresa txikietan genero-ikuspegia nola txertatu lantzeko metodologia prestatu da. Metodologia hori 2018an aurkeztu eta zenbait enpresetan aplikatuz baliozkotuko da.

EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako erakunde kolaboratzaileen sarea (BAI Sarea) parte-hartze bidez diseinatzen jarraitu dugu.

Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarea dinamizatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren SharePoint plataformaren barruan online, Herri Administrazio eta Justizia Saileko berdintasun-unitatearekin lankidetzan. Erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu, indartu eta koordinatzea ditu helburutzat sareak, ikaskuntza partekatuaren eta elkarlaneko lanaren bitartez. Gaur egun, 25 erakundek osatzen dute sarea. Prestakuntza-jardunaldi

*Respecto a la promoción de políticas de igualdad en empresas y entidades se han realizado las siguientes actuaciones:*

*Se ha informado y asesorado a más de 537 empresas en relación con las leyes de igualdad y las medidas existentes para luchar contra la discriminación y desigualdad de mujeres y hombres.*

*Se ha informado y asesorado de forma continuada a la demanda, creciente, de empresas y otras organizaciones privadas para la realización de un diagnóstico sobre la situación de mujeres y hombres y un plan de actuación dirigido a promover la igualdad de mujeres y hombres, a través de una convocatoria de subvenciones.*

*Se ha actualizado la "Guía de ayudas y modalidades de contratación para promover el empleo de las mujeres".*

*Se ha actualizado la guía "Mapa de ayudas para el apoyo del emprendimiento de mujeres en la CAE".*

*Se han valorado 23 solicitudes para el reconocimiento como "Entidad Colaboradora para la Igualdad de Mujeres al amparo del nuevo Decreto 11/2014 y se han otorgado 9 reconocimientos.*

*Se ha informado y asesorado a consultoras en relación con la convocatoria para la homologación de consultoras para la prestación de asistencia técnica en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades.*

*Se ha realizado el seguimiento de las Consultoras Homologadas para corroborar que siguen cumpliendo con los requisitos para la homologación: se ha retirado una homologación y se han homologado dos nuevas.*

*Se han valorado 14 empresas y entidades dentro de la convocatoria de ayudas para la contratación de una consultora homologada para la realización de un diagnóstico y un plan de igualdad. Tras la valoración de todas las solicitudes se ha adjudicado la subvención a 12 entidades, 2 han sido denegadas por no cumplir los requisitos de la subvención.*

*Se ha revisado el modelo de gestión avanzada de Euskalit y se elaborado, editado, publicado y difundido una guía que recoge como incorporar la perspectiva de género en la gestión avanzada.*

*Se ha elaborado una metodología para trabajar la incorporación de la perspectiva de género en las empresas pequeñas. Esta metodología será presentada y validada por su aplicación en algunas empresas a lo largo de 2018.*

*Se ha continuado con el diseño de forma participativa una Red de Entidades Colaboradoras para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE (BAI Sarea).*

*Se ha dinamizado la Red de Entidades Públicas para la Igualdad con funcionamiento on-line dentro de la plataforma de Share-Point del Gobierno Vasco en colaboración con la unidad para la igualdad del Departamento de Administración Pública y Justicia. Los objetivos de la Red son impulsar, fortalecer y coordinar las políticas de igualdad en las entidades públicas a través del aprendizaje compartido y el trabajo colaborativo. En la*

bat egin dugu sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren gaineko sarearen esparruan, eta laneko prozesu bat abiarazi da, erakunde publikoek berdintasun-politiken arloan dituzten premiei hobeto egokitzen zaien laguntza teknikoarekin.

*actualidad la constituyen 25 entidades. Se ha llevado a cabo una jornada de formación en el marco de la red sobre el acoso sexual y sexista y se ha iniciado un proceso de trabajo con un apoyo técnico más ajustado a las necesidades de las entidades públicas en materia de políticas de igualdad.*

Virginia Imazek «Berdintasunez jokatuz berritzea tailerra» irakatsi zuen maiatzaren 16an, Innobasquek antolatutako Global Innovation Day jardunaldiaren esparruan.

*"Taller: Innovar jugando con igualdad" impartido por Virginia Imaz el día 16 de mayo en el marco del Global Innovation Day organizado por Innobasque.*

Lan-ikuskaritzarekin elkarlanerako jardunaldia, lan-ikuskariei zuzendua, lanaren arloko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz.

*Jornada en colaboración con Inspección de Trabajo dirigida a inspectoras e inspectores de trabajo sobre igualdad de mujeres y hombres en materia laboral.*

Lucía Artacoz Lazcanok hitzaldi bat eman zuen Emakumeen osasunaren nazioarteko egunean, maiatzaren 22an, Bilbon, «Lan-denborak, Europako osasunean genero desberdintasunen adierazlea» izenburupean.

*Conferencia por el día internacional de la salud de las mujeres, que se realizó el día 22 de Mayo en Bilbao, con el título "Los tiempos de trabajo, un determinante de las desigualdades de género en la salud en Europa" e impartida por Lucía Artacoz Lazcano.*

Euskalitekin batera hitzaldiak eman genituen «Berdintasuna kudeaketa aurreratuan: tresnak eta esperientziak» gaiari buruz, 2017ko Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astearen XXIII. Biltzarraren esparruan.

*Ponencias conjuntas con Euskalit sobre "Igualdad en gestión avanzada: herramientas y experiencias" en el marco del Congreso de la XXIII Semana Europea Gestión Avanzada 2017.*

«Berdintasuna kudeatzeko gako berriak» jardunaldia egin genuen 2017ko Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astearen XXIII. Biltzarraren esparruan.

*Jornada "Nuevas claves para gestionar la igualdad", organizada en el marco de la XXIII Semana Europea Gestión Avanzada 2017.*

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan indarkeria sexista prebenitzeko Beldur Barik prestakuntza-proiektu pilotuaren ezarpenari dagokionez, guztira 46 zentrotan egin den esperientzia pilotu horren kanpo-ebaluazioa egin dugu.

*Con respecto a la implantación del proyecto piloto de formación Beldur Barik para la prevención de la violencia sexista en centros escolares de Educación Secundaria Obligatoria, se ha realizado la evaluación externa de esta experiencia piloto realizada en un total de 46 centros educativos.*

Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko BELDUR BARIK kanpaina sustatu eta kudeatu da. Horretarako, lankidetza-hitzarmen bana sinatu dugu foru-aldundiekin. Beldur Barik lehiaketaren 2017ko edizioan 129 udalerrik parte hartu dute, eta 390 bideo aurkeztu dituzte; horiek horrela, 2.664 gazte lehiatu dira gutxienez, eta horietatik 1037 mutilak eta 1587 neskak izan dira. Beldur Barik Lehiaketaren herri-botazioan, 8.974 pertsonen botoa erregistratu da guztira. Azken Topaketa (Beldur Barik Topaketa) eta sari-banaketa Eibarren egin ziren, abenduaren 2an, eta 350 parte-hartzaile izan ziren guztira.

*Se ha impulsado y gestionado la campaña BELDUR BARIK de prevención de la violencia sexista en la juventud, para lo que se ha firmado un convenio de colaboración con cada una de las Diputaciones Forales. En la edición 2017 del concurso Beldur Barik han participado 129 municipios y se han presentado 390 vídeos, que suponen una participación de al menos 2.664 jóvenes concursantes, de los que son chicos 1037 y chicas 1587. En la votación popular del Concurso Beldur Barik han registrado su voto un total de 8.974 personas. Se celebró el Encuentro final (Topaketa Beldur Barik) y la entrega de premios en Eibar el 2 de diciembre, con un total de 350 participantes.*

Irabazi asmorik gabeko erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzen deialdia egin eta kudeatu dugu, 2017an emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak prebenitzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak egiteko, baita berdintasunezko jarrerak sortzen dituzten estrategiak egiteko ere, indarkeria mota hori prebenitzeko oinarri gisa. Guztira, 86 proiektu aurkeztu dira; horietatik 40k jaso dute diru-laguntza. Gainera, beste 33 proiektu onartu dira, baina ez dute diru-laguntzarik jaso, aurrekontua agortu delako.

*Se ha realizado y gestionado la convocatoria de subvenciones a organizaciones, asociaciones y fundaciones, sin ánimo de lucro, para la realización durante 2017 de acciones de sensibilización y/o de prevención de comportamientos violentos contra las mujeres, así como estrategias que conduzcan a generar actitudes igualitarias como base para la prevención de esta violencia. El número de proyectos presentados ha sido de 86 y se han aprobado un total de 40 proyectos que han recibido subvención, así como otros 33 proyectos que habiendo sido aprobados no han obtenido subvención por agotamiento del crédito.*

Jabetuz programa kudeatzen eta sustatzen jarraitu dugu; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalentzako online prestakuntza-programa da. Programak 6 unitate didaktiko ditu; hau da, Emakunderen tutoretzapeko 85 prestakuntza-ordu dira

*Se ha continuado gestionando e impulsando el programa Jabetuz, programa de formación on-line a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres. El programa consta de 6 unidades didácticas, que suponen un total de 85 horas de formación tutorizadas y certificadas*

guztira, eta Emakundek ziurtatu ditu halaber, ikasle bakoitzaren banakako parte-hartzea, testak eta jarduerak ebaluatu ondoren. Bi edizio egin ditugu 2017an, eta hiru hilabeteko iraupena izan du bakoitzak. Bakoitzean 100 ikaslek parte hartu dute.

*por Emakunde tras evaluar la participación, tests y actividades individuales de cada alumna o alumno. Durante 2017 se han realizado dos ediciones con una duración de tres meses cada una. La participación ha sido de 100 personas por edición.*

Gainera, JABETUZ programaren barruan online prestakuntza-ikastaro aurreratua egiten jarraitu dugu; hiru unitate didaktikoz osatua, 35 ordu irauten dute eta ikastaroak 100 parte-hartzaile izan ditu guztira.

*Además, se ha continuado con el curso avanzado de formación on line dentro del programa JABETUZ, formado por tres unidades didácticas de 35 horas de duración y con una participación de 100 personas.*

Aurten, onik atera diren emakumeei egindako kalteen ordainari buruz hausnartzeko proiektuari esker (2015ean jarri zen abian), indarkeriaren xede izan diren emakumeen lekukotzak jasotzen dituen film bat egin da. Filmak Volar izenburua darama, Bertha Gaztelumendik zuzendu du, eta emakume horiek beren esperientziei esker bizitzeko garatu dituzten indarrak, eskaerak eta estrategiak islatu nahi izan ditu bertan. Volar filmean parte hartu duten emakumeek, hain zuzen, bizirik atera diren emakumez osatutako hiru elkarteko kideak dira. Volar 2017ko Donostia Zinemaldian eta hiru euskal hiriburuetan aurkeztu zen. Gainera, emakume horiei hitza eman eta haien esperientzien berri eman nahi izan duen ororen esku jarri dira bai CDa bai protagonisten presentzia.

*Este año, gracias al proyecto de reflexión para la reparación del daño causado a las mujeres sobrevivientes iniciado en 2015 se ha producido una película que recoge los testimonios de mujeres que han sido violentadas. Esta película que lleva como título Volar, y que ha sido dirigida por Bertha Gaztelumendi, ha querido reflejar las fortalezas, las demandas y las estrategias para la vida que ellas han desarrollado gracias a sus experiencias. Las mujeres participantes en Volar forman parte de 3 asociaciones de mujeres sobrevivientes del País Vasco. Volar fue presentada en el festival de cine, Zinemaldia 2017, de Donostia-San Sebastián y en las tres capitales vascas. Además, el CD así como la presencia de las protagonistas se ha puesto a disposición de quienes han querido dar voz a estas mujeres y compartir sus experiencias.*

Lanaren eta kirolaren eremuan sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzeko eta tratatzeko neurrien berri ematen eta neurrion aplikazioa sustatzeko kontsultei erantzuna ematen jarraitu dugu.

*Se ha continuado la difusión y la respuesta a consultas para promover la aplicación de medidas de prevención y tratamiento de acoso sexual y sexista en el ámbito laboral y en el deportivo.*

Askabide erakundearentzat diru-laguntza izenduna izapidetu eta kudeatu dugu, sexu-esplotaziora bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumeentzako arreta osoa kudeatzeko.

*Se ha tramitado y gestionado una subvención nominativa a la entidad Askabide para la gestión de la atención integral a mujeres víctimas de trata de seres humanos con fines de explotación sexual.*

Gainera, Oblatas kongregazioari diru-laguntza izenduna eman diogu, emakumeen salerosketaren biktimak hautematera zuzendutako proiektu bat kudeatzeko.

*Además, se ha tramitado y gestionado una subvención nominativa a la entidad Congregación Oblatas para la gestión de un proyecto dirigido a la detección de mujeres en situación de trata.*

Gizakien sexu-esplotaziorako salerosketaren arloko EAEko mahaiaren osoko bilkura egin dugu.

*Se ha celebrado una reunión plenaria de la Mesa de trata de seres humanos con fines de explotación sexual de la CAE.*

Osasunaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloko profesionalentzako gidaliburu autonomikoa eta hezkuntzako profesionalentzako liburuxka zabaldu dira, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen genitalen mutilazioa eragozteko eta arreta hobetzeko helburuarekin.

*Se ha difundido la guía autonómica dirigida a profesionales de la salud y el folleto dirigido a profesionales de la educación, con el objetivo de avanzar en la prevención y la mejora de la atención de la Mutilación Genital Femenina en la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartu du genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta horien seme-alaben giza eskubideak bermatzeko eta babesteko, bai eta indarkeria hori prebenitzeko ere. Horregatik, legeria erreformatzeko prozesuari ekin dio 2017an, instituzioek emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetzeko, eta, horretarako, eremu horretan nazioartean, Europan eta Estatuan garatu diren giza eskubideen azken estandarrak sartu ditu. Emakunderen ardurapean utzi da zeregin hori, eta parte hartze bidezko diagnostiko-tailerren deialdi bat eginez ekin dio lanari, emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko euskal legeria hobetzeko asmoz. Guztira, parte hartzeko 5 tailer egin dira: horietatik hiru gizarte zibilari zuzenduak, lurralde historikoko hiriburu bakoitzean bat; beste tailer bat Erakundearteko II.

*La Comunidad Autónoma del País Vasco, comprometida en la protección y garantía de los derechos humanos de las mujeres víctimas de violencia de género y de sus hijos e hijas, así como en la prevención de tal violencia, ha comenzado en 2017 un proceso de reforma legislativa, dirigido a mejorar la respuesta de las instituciones frente a la violencia contra las mujeres, incorporando así los últimos estándares de derechos humanos internacionales, europeos y estatales desarrollados en este ámbito. A Emakunde se le ha encomendado esta tarea y se ha iniciado este cometido con la realización de una convocatoria de talleres de diagnóstico participativo para la mejora de la Legislación Vasca Frente a la Violencia contra las mujeres. Se han realizado 5 talleres participativos: 3 de ellos dirigidos a la sociedad civil, uno en cada capital de*

Akordioko Erakundearteko Talde Teknikoarentzat eta Harrera Baliabideen Talde Teknikoarentzat; eta beste tailer bat euskal Administrazioko hiru mailetako berdintasun-langileentzat.

*TH; 1 taller dirigido al GTI y al GTRA del II Acuerdo Interinstitucional; y otro taller dirigido al personal de igualdad de los tres niveles de la Administración vasca.*